# FAKULTATEKO BATZORDE IRAUNKORRAREN AKTA (2021eko uztailaren 8a)

**Bertaratutako eta bertaratu ez diren kideak (MENeko 22.2 artikulua)**

***Dekanotza taldea***

1. Peña Fernández, Simón – **dekanoa**
2. Arlucea Ruiz, Esteban - **idazkaria**

***Administrazio burua***

3. Asensio Espina, Kiztiñe

***Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak***

4. Davila Legeren, Andrés
5. Meso Ayerdi, Koldo (*ez da bertaratu*)
6. Zalbidea Bengoa, Mª Begoña
7. Otero Gutiérrez, Beatriz
8. García Ureta, Irene (bertaratu ez izana azaldu du)

***Gainerako irakasle eta ikertzaileak***

9. Zabalondo Loidi, Beatriz (*ez da bertaratu*)

***AZPko langileak***

10. Arandia Urtiaga, Igone

***Ikasleak***

2021eko uztailaren 8an (osteguna), 12:00ak direnean, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzordea telematikoki bildu da, bigarren deialdian eta ohiko bilkuran, eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru dela, eta alboan zerrendatutako kideen bertaratzearekin, gai zerrendako puntu hauek aztertzeko:

## 1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onartzea

Baiespenez onartu da Batzorde Iraunkorraren 2021eko urtarrilaren 29ko akta.

## 2. Dekano jaunaren txostena

Dekano jaunak txosten txiki bat egin du; izan ere, denbora gutxi egon da aurreko Batzarretik. Txostena hiru puntutan oinarritzen da:

A) Martxoari dagozkion aurretiazko izen emateei buruzko datuak. Aurreko urtekoen oso antzekoak. Beharbada, % 0,1eko edo % 0,2ko beherakada ikus daiteke, eta hori positiboa da; izan ere, ezin izan da sustapen ekitaldirik egin. Gradu bikoitzei dagokienez, erakargarritasun handia mantentzen dute.

B) Ibilbide duala. 48 pertsonak izena eman dute, eta enpresen hautaketa prozesua pasatzea falta zaie. Eskaintza dago eskari guztirako.

C) BbC erabiltzeari utziko zaio laster; izan ere, UPV/EHUk sareko tresna lehiaketara atera du eta esleipenduna ez da BbC kudeatzen duen sozietatea izan.

## 3. GRALen irakaskuntza gidak 2021-2022 ikasturterako

GRALa ikastegiko irakasgaia denez, gidaliburuak FBk edo BIak onartu behar dituzte. Onartuak izan dira.

## 4. Gizarte Komunikazioko masterreko zenbait irakasgai lauhilekoz aldatzea

Onartua izan da. "Agendan eta Framingean aplikatutako ikerketa" irakasgaia lehenengo lauhilekora pasa da eta "Internet bidezko merkataritza-ikerketa. Metodologiak eta baliabide digitalak", berriz, bigarrenera.

**5. Batzordeak**

Nazioarteko Harremanen Batzordeak hiru kide gehiago ditu: María Ganzabal, Ignacio Mendiola eta Paula Orue ikaslea.
"Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan" masterreko Batzorde Akademikoa honako kide hauek osatzen dute: Gabriel Gatti (batzordeburua), Estibaliz De Miguel eta Benjamín Tejerina.
"Partaidetza eta Komunitate-Garapena" masterreko Batzorde Akademikoa Imanol Telleríak (batzordeburua), Izaro Gorostidik eta Andere Ormazabalek osatzen dute.
Aldaketak onartu dira.

**6. Galde-eskeak**

Ez dago.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, bilera 12:40an amaitu da, eta nik, idazkari nien aldetik, horren fede ematen dut, Leioan, 2021eko uztailaren 8an.

| | |
|---|---|
| Dekanoaren O. E. | Idazkari akademikoa |
| ***Simón Peña*** | ***Esteban Arlucea*** |